

288. alea - 2023ko urria
Debako herri aldizkaria

Zuhetza W. deba euskara
elkartea

Berriketan



**Emakume aktoreak eta haien
sorkuntza lanak fokupean**



ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com
Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

f www.facebook.com/adatsileak
i @adatsileak



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behea. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

*Hondartza ondoan
Urte gustian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA

ME ENDAÑETA
muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziaroko gaina
T.: 943 19 91 00
F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)
endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

k
kutxabank

L&K Home

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolkhome@gmail.com

Torrealday

AHOLKULARITZA
LIDERRA,
TOKIKO
ARIMAREKIN

ZERGA, LAN ETA
KONTABILITATE
AHOLKULARITZA

ONDARRIOA - 94 683 29 75
EBILIA - 94 37 44 35
Eta beste herri botzuetan.
www.torrealday.es

Maitena Arrizabalaga Deba
Odontologia

Kolegiatu zk. 20.000.975

maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24

Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com
Tel: 685 703 843



AURKIBIDEA



BERRIKETAN 288

2023ko urria

Azaleko irudiaren egilea:
Nerea Bedialauneta Alkorta



10 ALBISTEAK
Azaroaren 4ko Bilboko manifestaziora joateko autobusa antolatu dute Deba eta Itziartik



12 ERREPORTAJEA
Gogotsu hasi da lanean Arbil erretiratuena eta pentsiodunen elkarteko zuzendaritza batzordea



16 ERREPORTAJEA
Azaroaren 3tik 12ra izango da Fokupean festibala, GOAZ Antzerki Taldearen ekimenez



21 ELKARRIZKETA
Azaroaren 1ean egingo den Itziarko Periari buruz solasean aritu dira antolatzaileak



24 ELKARRIZKETA
Durangaldeko Nevadah musika taldeaz eta bere ibilbideaz mintzo da Anartz Ugarte baxujolea



28 AGENDA
Datozen asteotan egingo diren jarduerak eta ekimenak jaso ditugu atal honetan

Zuhatza euskara
elkartea

Berriketan

ARGITARATZAILEA
Zuhatza Euskara Elkartea
HELBIDEA
Ifor kalea, 12 behe. 20820 (Deba)
TELEFONOAK
943 19 13 83 / 632 04 33 22
HEDABIDEAREN E-MAILA
berriketan@zuhatza.com
ELKARTEAREN E-MAILA
koordinatzailea@zuhatza.com
ERREDAKZIOA
Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta
eta Alex Turrillas
KOORDINATZAILEA
Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA
Joseba Escudero eta Alex Turrillas
LOGOTIPOAREN DISEINUA
Iñaki Elosua
MAKETAZIOA
Maku Oruezabal
TIRADA
1.400 ale
MAIZTASUNA
Hilabetekaria
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
LEGE GORDAILUA
SS/246/200
ISSN: 2171-7656

LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Gutunak



Azaroaren 30ean, Zaintza Greba Feminista Orokorra

Azkenaldian nahiko entzuten da batzuen ahotan zaintzaren eztabaida eta hau aldarrikatzeko premia. Baina zer da zaintza? Zainduak izan gara lehen pixoihala jarri zigutenetik eta kenduko diguten azkenengoraino. Zainduak izan gara kozinatu diguten aldi oro, arropa edo etxea garbitu diguten aldi oro. Zainduak izan gara besarkada batek babestu gaituenean. Eta guk ere zaindu dugu. Zaindu dugu fardelak kendu ditugunean, kozinatu dugunetan, arropa eta etxea garbitu dugunean, norbait besarkatu dugun bakoitzean.

Zaintza pertsonon behar fisiko, emozional eta sozialei erantzuteko jarduera multzoa da. Baina argi dago zaintza lanen banaketa ez dela parekotasunean oinarrituta egin. Ama, alaba zein amonek bete izan dute lan hori, baita historikoki arlo feminizatu izandako garbitzaile, hezitzaile zein haurren, dibertsitate funtzionaldunen eta zaharren zaintzaile profesionalak ere. Oro har, emakumeok zaintzaren zama gure gain hartu dugu, eta, noski, langile klaseko eta arrazializatutako emakumeek zaintzaren zatirik gogorrena jasan dute. Gainera, zeregin hauek gutxietsiak, ikusezinak eta prekarizatuak izan dira urteetan zehar.

Zaintza lana duina izan dadin, honen erantzukizunak gizarte osoaren gain egon behar du, hau da, zaintzak publiko eta komunitarioa izan behar du. Hala, administrazio publikoaren esku-hartzea aldarrikatzen dugu zaintza langileen eskubideak eta baldintza egokiak berma daitezzen. Bestalde, zerbitzu publikoaren erantzukizunetik at gelditzen diren zaintza lanak (etxeko lanak, erosketak edota seme-alaben eta adinekoen zaintza, adibidez), modu orekatuago batean banatzea beharrezkoa da, zainketa desfeminizatzeke.

Horregatik guztiagatik, azaroaren 30ean Zaintza Greba Feminista Orokorrera deitu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Deba eta Itziarko herritarroi grebara batzeko eta arratsaldean egingo diren kontzientziazio kanpaina, solasaldi eta kontzentziora etortzeko deia egiten dizuegu. Bildu gaitzen guztiok zaintza eredu hobea baten alde!

DIT feminista

Herri bazkariak egiteko tresneria eragileen eskura

Bi herrien arteko harreman sareak sortzeko ideia tiraka, Deba-Reus topaketa antolatatu genuen 2017an. Lehen topaketa hartan, herriko hainbat eragiletako kideak eta 100 bat lagun joan ginen Reusera. Haria ez zen eten eta, gerora, beste bi topaketa ere egin dira Deban.

Proiektuak aurrera egin ahala oharitu gara herriko eragileen zein herritarren parte-hartzea eta lan boluntarioa direla ekimenaren arrakastaren gakoak. Gauzak horrela, jaso dugun babesa eskertu nahi dugu, baita eragileen jarduna indartzeko eta kultur eskaintza aberasteko baliabideak eskaini ere.

Antolatutako ekimenen bidez lortutako baliabide ekonomikoei esker, 600 pertsonari jaten emateko paella-ontziak eta bestelako tresneria erosi ahal izan dugu, Itziarko Auzo Udalarekin eta Itziarko bestelako eragile batzuekin elkarlanean. Gutun honen bidez, hortaz, aipatutako material hori guztia herri bazkariak edota kultur egitasmoak antolatu nahi dituzten Deba-Itziarko taldeen eskura dagoela jakinarazi nahi dizuegu. On egin!

Deba-Reus Komisia





MATTIN URBIETA

Zenbat dira aski?

Hasiera batean Euskal Herriko Unibertsitatean bizi dugun egoerari buruz idazteko asmoa nuen: LOSU Unibertsitate lege berriaz eta errektoretza taldeak era interesatuan egindako interpretazioaz; prekarietateaz, finantzaketa faltaz eta 800 euroko kontratuez; baita urriaren 11n eginiko grebaz ere. Munduak biraka jarraitu du ordea, eta ezin buruko jirabira guztiak hemen sartu. Saiatu beharko.

Eskolan historia ikasteak zertarako balio zezakeen bota zuen batek aurreko batean afaritan. Ziririk sar ez diezaguten, akatsak errepika ez daitezten, gatazka baten erroak ulertzeko, zapaldua eta zapaltzailea zeintzuk diren bereizten jakiteko, edo guztiz hedatuta dauden desinformazio eta gezur-sareetan plaust jaustea ekiditeko. Saiatzeko, bederen.

Gai Humanitarioak Koordinatzeko Nazio Batuen Bulegoaren arabera, 2008ko urtarrila eta 2023ko iraila bitartean 6.407 palestinar eta 308 israeldar hil *dira* gatazkan, gehienak Israelgo indar armatuek erailda (ochaopt.org/data/casualties). Balantzan jarrita, israeldar 1 = 20 palestinar. Eta hori, azken egunetan ehunka izan diren hildakoak eta izango direnak zenbatzeke daudela. Are gehiago 1948tik kontatzen hasita. Ez dakit noiz utziko diogun ospitale eta eskolen kontra lehertutako bonben oihartzuna entzuteari, noiz desagertuko den Palestina titularretatik, noiz amaituko den sarraskia. Zenbat palestinar erail behar ditu Israelek bere mendeku egarria asetzeko? Zenbat izango dira aski Europarentzat? Zenbat dira zuretzat? Saiatu zenbakia jartzen.

"Zenbat palestinar erail behar ditu Israelek bere mendeku egarria asetzeko? Zenbat izango dira aski Europarentzat? Zenbat dira zuretzat?"

LIZ-ZK.: 3

TaxiAlain Deba

WiFi

636 135 008
alain@taxideba.eus

www.taxideba.eus

MAIEDER Eider Sampayo
horts klinika Maialen Linazasoro

Inplanteak eta kirurgia
Periodontzia · Endodontzia
Estetika eta zuriketak
Protesiak · Odontopediatria
Azido hialuronikoa
Aho-aurpegi eta ATM alterazioak

Zarautz
Kale Nagusia 9-1
943 13 32 69
722 81 56 60
dental@maieder.com
www.maieder.com



1960ko hamarkada

Udal merkatuaren irekiera

Astillero kaleko udal merkatuak 1960ko hamarkadaren amaieran zabaldu zituen atea lehen aldiz. Urteek aurrera egin ahala, merkatua desagertu egin zen, gaur egungo Ostolaza Udal Liburutegiari leku eginez. Argazkiak herriko agintari zibil, erlijioso eta "militarrekin" egindako inaugurazio ekitaldia erakusten ditu. Ezer esan aurretik, irudian nortzuk agertzen diren asmatzeko aukera emango diegu irakurleei...

Datu gutxi batzuk baino ez: Anes Arrinda da parrokoa (beste bi apaiz ere agertzen diren arren), Angel Busteros alkatea eta meza-mutilak, berriz, Juanma Iparragirre eta Pepu Turrillas dira.

Alex Turrillas Aranzeta



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

| | |
|-----------------------------|-------------|
| * Fisioterapia - Osteopatia | * Podologia |
| * Gimnasia hipopresiboak | * Dietista |

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



ITSASO ICIAR

Buelta hasierara

Ahazte-prozesuetan profesionalak dirudigu. Sormen-maila altuko garunak garatzeaz arduratzen gara haur ororekin eta, harritzekoa den arren, hazten goazen heinean sormenari uko egin eta "onak" garen horretan zentratzeko esaten digute. Esaten digute eskolan eta esaten digute etxean. Lagunek, familiakoek, auzokideek ere esaten digute. Baina nola bilakatzen zara "on" zerbaitetan? Ikasgai edo lanbide batean?

Sarritan pentsatu izan dut gure bizitza nonbait idatzita dagoela, jaio aurretik nor eta nolakoa izango naizen dioen "zerbait" existitzen dela, "patua idatzita" dagoela. Beste batzuetan, akatsei erreparatzen diet, kanpotik begiratzen saiatu eta egin dudan hori nire bizitzaren bideko zati bat ote den hausnartzen dut. Ziur nago akatsak konponduko ez banitu, ondo eta zuzen egiten dudan horrek guztiak ez lukeela bizitzan garrantzirik izango. Eta, orduan, ahazte-prozesuan profesional bihurtzen gara. Zenbat aldiz egin duzu gai beraren inguruko hausnarketa behin eta berriz? Zenbat aldiz hasi zara zerbaitetan pentsatzen hasierako puntutik? Pentsatzen duzun horrek zer nolako garrantzia du ondoren hartuko duzun erabakian?

Ahaztea gustatzen zaigu, berriz hasierako puntura itzultzen garenean gure garunak pentsamenduen munduan egingo duen ibilbidea zein den badakigulako. Engainatzeko mila teknika ditugu barneratuta, gure buruari "merez" duen garrantzia hori eman ahal izateko, ziur asko, gure pertsonak duen balioa ahalik eta handiena dela pentsatzeko.

Hasierara bueltatu nahi izaten dugu horrela, bizi izan dugun guztia berriz bizitzeko teknika ezberdinak bilatuz, hauek garatuz, zoriontsu egin gaituen hori guztia berriz bizitzeko esperantzarekin. Noiz utziko diogu, bada, gertatu behar duen horri lasai gertatzen?

"Ziur nago akatsak konponduko ez banitu, ondo eta zuzen egiten dudan horrek guztiak ez lukeela bizitzan garrantzirik izango"



ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfñoa.: 943 191 095

Memoria hilobitik ateratzen

JOSE LUIS ALBIZU ETA XABIER LAKA

Azaroaren 13an 79 urte beteko dira Jose Mari Irusta Mugarza Melk-eko kontzentrazio esparruan erail zutenetik. Nazismoaren izugarrikeriak gogoraziz, plaka bat ezarri zuten orain lau urte Lersundi kalean.

Jose Mari Irusta Mugarza Deban jaio zen 1908ko azaroaren 17an, Pilotalekua deritzon Lersundi kaleko etxean, oraingo 6 eta 8 zenbakidunen tartean, sarrera San Roke kaletik duela. Aita Guillermo iturgina zuen eta ama Nikolasa etxekoandrea; lau seme-alaba izan zituzten.

Ikasle onaren Jose Mari; matematikarako erraztasuna eta letra ona izanik, Banco Guipuzcoanon hasi zen lanean eta hainbat sukurtsaletako kontabilitateaz arduratzen zen. Matxinada lehertu zenean, Eusko Abertzale Ekin-tzako afiliatu zen eta Eusko Jaurlaritzako kontu-eramaileen taldeko kide izan zen. Bilbo erori zenean, Iparraldean errefuxiatu zen, Ramon eta Jose Luis anaiak bezalaxe.

1944an ebakuntza egin behar izan zioten Biarritzeko ospitale batean; eta, bi egunera, artean bere onera etorri gabe zegoela, atxilotu egin zuen Gestapok. Garai hartan atxiloteta ugari ausaz egiten zituzten eta Jose Mariri espioi izatea leporatu zioten. Egun haietan lehorreratu ziren aliatuen tropak Normandian eta Frantziako erdialdera zihoazen; beraz, atxilotuetako asko espioi izateaz akusatatu zituzten, atxilotzeko aitzakia besterik ez bazen ere.

Jose Mari Bordelera eraman zuten 1944ko abuztuaren 9an eta handik Tolosara (Frantzia); han "tren mamuan" (gehienbat gauzez ibiltzen zelako deitzen zioten horrela) abiarazi zuten. Aliatuek ez zekiten tren hark zer zeraman barruan eta behin eta berriz metrailatu eta bonbardatu zuten. Ondorioz, hainbat atxilotu hil ziren bertan. Gutxi batzuek ihes egitea lortu zuten, bagoien zoruan zuloak egin eta, tren martxan zela, haietatik jauzi eginez. Alemanen dokumentuetan agertzen denaren arabera, trenak 60 bat euskaldun zeramatzen.

Gerraren hasieran, kontzentrazio esparruetan sartutako pertsonak berehala asasinatzen zituzten. Ondorenean, 1942tik aurrera, alemanek nahiago izan zuten atxilotuak gerrarako materiala bideratzen



Gestapok 1944an atxilotu zuen; garai hartan atxiloteta ugari ausaz egiten zituzten eta Jose Mariri espioi izatea leporatu zioten

zuten fabriketan lanean jartzea. Jose Mari Dachau-rama eraman zuten lehenbizi eta Mauthausen-era gero: 1944ko abuztuaren 28an sartu zuten azken horretan, 93956 zenbakiarekin. Austriako lurraldean kokatua, kontzentrazio esparru hura hainbat kanpamentuz osatuta zegoen, eta haietako batera, Melk-era, eraman zuten; gerra fabrikak eraikitzeko tunelak egiten zituzten bertan.

Tren mamuan zeramatela, Bitor bizkaitarrarekin egin zuen topo; meatzari izana zen hura eta lagun egin ziren berehala. Meatzariak trenean eta kontzentrazio esparruan biziraun zuen eta, askatu eta hiru hilabetera kontatu zuenez, Jose Mari gurasoekin oso arduratuta zegoen, bera non zegoen ez jakiteagatik izango zuten sufrimendua zela eta. Meategiko lana oso gogorra zen eta Bitor ohitua zegoen; Jose Mari ez, ordea, eta itogarri gertatu zitzaion. Batzuetan, langileei esan gabe lehortarazten zuten dinamita; barazki ustelez eginiko zopa jaten zuten, arreta medikurik ez... horrek guztiak larriki gaixotu eta heriotza ekarri zion. Melk-eko heriotza-agiriak dioenez, 1944ko azaroaren 13an hil zen.

Mauthausen-Gusen kontzentrazio esparrua 1945eko maiatzaren 5ean askatu zuten.



ENRIKE IZAGIRRE

‘Bueltan-bueltan morokilla’

Errutinak ospe eskasa izan arren, egunerokotasunak abantaila ugari ekar litzake; areago bizimoduak gustuko ofizioan fortunatu bazaitu. Azken boladan, lan kontu batek *ahotsak.eus*-en aztertzerak ekarri nau beste behin. Literaturak edo beste denbora-pasa oso gutxi lotzen naute aulkira *ahotsak.eus*-eko jardunek bezain gogotsu. Gaur ere noizbait behar eta morokilaz ari zen grabazio batean utzi behar izan dut, penaz, bilaketa.

Morokila nola prestatu adierazteko, eragin eta eragin, bueltaka-bueltaka, üngürü-üngürü eta antzeko moldeak erabiliko dizkizute hirutatik bitan. Gure amak ere halaxe azaltzen zuen. Bazeukan gainera gure amak halako semantika-desplazamendu batzuk egiteko gaitasuna eta grazia. Morokilarena, esaterako, zenbat aldiz baliatu ote zuen mundu honetako gertakizunak –beltzenak batez ere: gaixoaldiak, heriotzak– batean urliari eta hurrengoan sandiari egokitu ohi zaizkiola asumitzeko: bai ba, *morokilla bueltan-bueltan dok beti*.

Mallabiko Osmak auzunean 2022ko udazkenean murgildu zen heriotzean bost seme-alabaren ama Rosa. Emakume haren lau biloba izan genituen aspaldi batean ikasle. Norberak ere bizitzatik ikasten jarraitu nahi izan du eta, hogeitaz beranduago, Rosaren lau biloba fin haiek maisutzat nahi lituzkeela sentitzen du gaur. Izan ere, gazteen eta nagusien arteko irakaspenak ere txandan-txandan, bueltaka suerta litezke sanoen. Denboraren joan-etorriak, horrexek elikatu eta horrexek jango gaitu neurri berean.

"Literaturak edo beste denbora-pasa oso gutxi lotzen naute aulkira *ahotsak.eus*-eko jardunek bezain gogotsu"



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



Azaroaren 4an Bilboko kaleak betetzera deitu du euskalgintzak

Azaroaren 4an euskalgintzak deitutako manifestazioa egingo da Bilbon, 17:00etan Euskaldunatik abiatuta. Mobilizazioa euskararen normalizazioaren aurkako oldarraldiaren testuinguruan kokatzen da. "Izan ere, azkenaldian auzitegietatik areagotu egin dira euskararen sustapena eta normalizazioa helburu duten hainbat neurriren aurkako sententziak. Uliazpi, Laudio, Barakaldo, Irun, Uharte, Erandio, Berriozar, Atarrabia, Orkoi... Eta epe laburrean espero ditugun beste asko", nabarmendu du Euskalgintzaren Kontseiluak.

"Argi dago ez direla sententzia isolatuak, baizik eta botere judizialetik hizkuntza-politika aurrerakoiak mugatzeko eta herritarron hizkuntza-eskubideak murrizteko joera gorakorra: oldarraldi bat. Izan ere, sententzia guztiek elementu komun bat dute: gaztelearen nagusitasuna ezartzea he-

rritarron hizkuntza-eskubideen gaintetik, eta beraz, oinarritzko eskubideen kaltetan". Horregatik, "oldarraldiaren aurrean, erantzun bateratua" ematera deitu dute.

Autobusa Deba-Itziartik

Deialdiarekin bat egin dute Debako Udalak, Itziarko Auzo Udalak eta Zuhatza Euskara Elkarteak, eta Bilbora joateko autobusa antolatuko dute egun horretarako.

55 lagunentzako autobus bakarra egongo da. Itziarko Kanala pareko geltokitik irtengo da (15:15ean) eta Debako estalitako pasealekuko geltokian jasoko ditu gero herritarrak (15:30ean). Bost euroan egin ahal izango da joan-etorria eta ordainketa autobusean bertan egin beharko da. Aurrez eman behar da izena (Debako turismo bulegoan, udaletxeko harreran, Itziarko harrera bulegoan edo labur.eus/debaitziareuskararekinbat estekan).

Ikasturtea lau talderekin abiatu dute mintzalagunek

Urrian zabaldu da Mintzalagunean izena emateko epea eta momentuz lau talde daude martxan: horietako bi astelehenetan elkartzen dira (bata 15:30ean eta bestea 16:00etan), hirugarrena ostegunetan 17:45ean, eta laugarrena ostiraletan, 11:00etan. Dena dela, ikasturte osoan egoten da zabalik izen-ematea (doan).

Parte hartu nahi dutenek Zuhatza elkartearen bulegorajo beharko dute (943 19 13 83). Bestela, Internet bidez ere eman daiteke izena, koordinatzailea@zuhatza.com era idatzita edo ondorengo estekan sartuta: labur.eus/zuhatza_deba.

Gau Beltzari buruzko dokumentala eta batzar irekia Kultur Elkarte

Euskaltzaleen Topaguneak Gau Beltzaren inguruan sortutako dokumentala proiektatu zen Kultur Elkarte, urriaren 25ean, Zuhatza elkartearen ekimenez. "Zer da Gau Beltza? Nondik dator? Non eta nola ospatzen da?"; bada, horren berri ematen du ikus-entzunezkoak.

Ospakizun horren gaineko informazioa emateaz gain, etorkizun hurbil batean "Deban ere Gau Beltza ospatu ahal izateko lanean hasi eta martxan jartzeko" helburuz antolatutako emanaldia, baita ondorengo bilera irekia ere. Hamarnaka lagun batu ziren euskara elkarteak egindako deialdira.





Martxan da Errigoraren udazkeneko kanpaina, '10 urte bete-bete' goiburupean

Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen Errigora ekimenak hamar urteko ibilbidea betetzen du aurten eta "gero eta zabalagoa den" komunitateko kideak orain arteko bidetik lanean jarraitzeko prest azaldu dira beste behin ere.

Udazkeneko *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpainari ekin diote oraingoan eta azaroaren 9ra bitartean izango dute abian. Nafarroa hegoalde eta erdialdeko produktuz osatutako saskiak milaka etxetara eramango dituzte, bertako

euskalgintzari ekarpen ekonomiko garrantzitsua eginez (saski bakoitzaren balioaren %25). 50 euroko saski bakarra eskainiko dute aurten (23 ekoizleren 9 produktu ekologiko eta konbentzionalekin osatuta).

Eskaerak *errigora.eus* atarian egin behar dira eta Zuhatzako bazkideek Deban jaso ahal izango dituzte saskiak. Gainera, produktuen doako dastaketa antolatu du elkarteak azaroaren 2rako (18:30ean, Kultur Elkartearen). Aurrez eman behar da izena, 688 84 03 08 telefonoan.



230 bat gaztek parte hartuko dute Mendatak eta Zuhatzak antolatutako lehiaketan

Ikasturte berriarekin batera, urtero legez, urrian abiatu da Mendata ikastetxeak eta Zuhatza Euskara Elkarateak elkarlanean antolatutako euskarazko literatur lehiaketa. Bi zikloetako 230 bat ikaslek hartuko dute parte aurtengo deialdian.

Oraingo honetan ere, irudi eta esaldi bat emango zaie ikasleei aukeran eta berau gaitzat hartuta sortu beharko dute sariketarako idazlana. Lau kidez osatutako epaimahaia arduratuko da gazteen lanak baloratzeaz eta sariak (liburu elektronikoak eta herriko liburutendetan gastatzeko txekak, besteak beste) abenduaren 1ean, Euskararen Egunaren bezperetan, ikastetxean bertan egingo den ekitaldian banatuko dira.

Euskeraz Bagera jardunaldiak egingo dira Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan



Aisialdiaz euskeraz gozatu ahal izateko eta herritarren artean harreman sare berriak eraiki ahal izateko erronkari helduta antolatuko da hirugarren urtez Euskeraz Bagera egitasmoa, Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan.

Zuhatza Euskara Elkarateak, Debako Udalak eta herriko hainbat eragilek elkarlanean antolatutako egitaraua azaroaren

27an abiatu eta abenduaren 17ra arte luzatuko da eta, ekintza eta data guztiak zehaztuta ez badaude ere, askotariko jarduerak aurreikusten dira programazioan.

Antolatzaileen esanetan, hasierako "zirriborro bat" osatzen, baina herriko eragile guztiak gonbidatu dituzte euren proposamenak egin eta ekimenean parte hartzera. Hortaz, ekarpenen bat egin nahi dutenek azaroaren 10era arteko epea izango dute horretarako; 688 84 03 08 telefono zenbakian jar daitezke harremanetan antolatzaileekin.

Zahartze aktiboaren aldeko apustuari eutsi nahi dio Arbilek, udalaren babespean

Arbil erretiratuen eta pentsiodunen elkarteak 1982an ekin zion bere ibilbideari. Elkarte adinekoen kolektiboari zuzendutako jarduerak dinamizatzeko sortu bazen ere, orain pauso bat harago joan eta zahartze aktiboaren aldeko apustuan sakontzeko bidean jarri du arreta udalaren laguntzarekin eratu den zuzendaritza batzorde berriak. Erronka hori lortzeko bidean, baina, adinekoen topaleku "huts" izatetik Adinekoen Gizarte Zentro izatera iristea izango da gakoa.

Informazio gehiago
Arbil elkartearen
Instagram kontuan:
[@arbil_deba](#)



Zahartze aktiboa, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, osasun, parte-hartze eta segurtasun aukerak optimizatzeko prozesua da, eta pertsonak zahartu ahala bizi kalitatea hobetu ahal izatea bilatzen du. Eta horren aldeko apustua egin du duela gutxi eratu den Arbil erretiratuen eta pentsiodunen elkarteko zuzendaritza batzordeak. "Erretiratuak bizitza oso aktiboa daramagun herritarrek gara. Horregatik guztiagatik, zahartze aktiboa sustatzeko beharra ikusi dugu".

Zahartze aktiboa bultzatuz, gainera, erretiratuen eta pentsiodunen elkarte izatetik Adinekoen Gizarte Zentro izatera iristeko asmoa azaldu dute; espazio hori herriko adineko jende guztientzat zabalik egongo den "batasunerako leku erreferente" bihurtzea da erronka. "Adinekoen kolektiboa osatzen dugun ahalik eta pertsona gehienengana iristea da helburua, izan ere, Deban biztanleriaren %24 ordezkatzeko dugu".

Jauzi hori emateko, baina, beharrezkoa ikusi dute parte-hartzea eta sozializazioa helburu duten bestelako ekintza batzuk ere antolatzea; erabiltzaileen iradokizunetatik abiatuta, jardueren zerrenda luzea osatu dute. "Ohiko eskaintzaz gain, ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, kirol jarduerak, bidaiak, mendi irteerak... antolatze-ko asmoa daukagu". Zehaztu dutenez, abendura arte egingo dituzten ekimenen egitaraua osatuta daukate, eta aurrera begira "jendearen kezka eta interesen araberrako" ekintzak antolatzeko prest agertu dira. "Jendea gustura egotea eta parte-hartzea bultzatzea da gure helburua eta horretarako proposamen berriak jasotzea beharrezkoa da".

Indarberrituta

Asmo horiek finkatzeko orduan, beste elkarte batzuen esperientziak ezagutzea "garrantzitsua" izan dela aitortu dute, baita zuzendaritza batzordea "berpiztea" ere. Diotenez, hiru pertsona bakarrik geratzen



Arbileko zuzendaritza batzordeko kideak, elkartearen egoitzaren aurrean. ANDER SALEGI

ziren karguan, baina udalak egindako ahaleginari esker, talde berria eratzea lortu dute.

"Hamabi urteren ostean, Itziar Diez Badiola presidentea, Itziar Oñederra presidenteordea eta Maria Luisa Ostolaza idazkaria bakarrik geratu ginen", azaldu dute. Lekukoa hartzeko jendea falta zela ikusirik, udal ordezkariekin elkartu ziren eta, beren egoeraren berri izan ondoren, udala taldea indartzeko lanean jarri zela adierazi dute.

"Haize freskoa ekarri duten beste bederatzi lagunek baiezkoa eman ondoren osatu dugu taldea. Lehen hiru pertsona geunden eta oso mugatuta geunden. Orain, ordea, ardurak banatu ditugu eta, hortaz, lana eraginkorragoa izango da". Diezek, Oñederrak eta Ostolazak lehengo karguan jarraitzen dute, Rosa Ostolaza diruzaina izango da eta Joxerra Larrañaga, Itziar Muga, Enrique Garcia, Ina Aznal, Carlos Zubizaray, Maria Naranjo, Izaskun Urbizu eta Oscar Urdangarin, berriz, batzordekideak.

Esku artean dituzten gai edo eginkizunetan laguntzeko edo aholkuak emateko laguntzaile sarea ere hasi dira osatzen. Talde horretan daude, adibidez, Alfredo Tapia, Enrique Salgado, Irene Askasibar, Eladio Cortes eta Agurtza Markuerkiaga. Edozein arlotan laguntzeko prest dauden herritarrak beso zabalik hartuko dituztela diote. "Gure ikuspegitik aztertutako edota gure beharrak asetzeko moduko edozein proposamen ongi etorria izango da. Era berean, norbaitek gurekin lan egitera etorri nahi badu ere, oso pozik hartuko dugu".

"Osasuntsu"

Udalerrian, adineko bi lagunetik bat elkarteko bazkide da, eta gaur egun 688 bazkiderekin elkarte "osasuntsu" dagoela uste dute. Hala ere, kanpaina martxan dagoela gogorarazi dute. Interesa duten herritarrek elkartera jo beharko dute. "Astelehenetan eta ostegunetan aurkituko gaituzue bulegoan, 11:00etatik 12:30era".

"Jendearen kezka eta interesen arabera" ekintzak antolatzeko prest agertu da talde berria

Gaur egun, 688 bazkide ditu Arbilek; bazkidetza kanpaina martxan dagoela gogorarazi dute



2023-2027 agintaldian Itziarko Auzo Udala kudeatuko duen lantaldea. ITZIARKO AUZO UDALA

Itziarko Auzo Udaleko batzarkideek beren kargua hartu dute

"Denon Herria plataformatik bideratutako prozesu herritar" baten bitartez osatu da Itziarko Auzo Udala kudeatzeko ardura izango duen lantaldea. 2023-2027 agintaldian sei lagun ariko dira Arantza Egaña auzo alkatearekin batera lanean. Azpimarratu dutenez, "talde anitz bat osatzea" izan da helburu nagusia.

Ekainaren 17an Arantza Egaña Itziarko auzo alkate izendatu ondoren, berekin batera lantaldea osatuko duten batzarkideek ere kargua hartu dute; urriaren 19an Apaizetxea eraikineko batzar aretoan egindako ohiko osoko bilkuran izan zen ekitaldia.

Zehaztu dutenez, batzarkide eta taldekideak izendatzeko "epe ezberdinak" izan dira tartean, eta hori izan da lantaldea "hain berandu" osatzeko arrazoi nagusia. "Denon Herria plataformatik

Hirugarren agintaldian sartuta, etorkizuneko erronka berriei begira jarrita dago taldea

bideratutako prozesu herritar" baten ondorioz, honakoek hartu berri dute kargua: auzo alkatearekin batera, Xabier Laka alkateordeak eta Maider Lopetegi batzarkideak karguan errepikatuko dute eta Itziar Borda, Ander Torres, Andima Egaña eta Unai Loiola dira taldeko aurpegi berriak. Azpimarratu dutenez, "talde anitz bat osatzea" izan da helburu nagusia. "Lehendik lanean aritu direnek beren esperientzia gehituko dutela uste dugu. Orain bertaratutakoek, aldiz, lanerako gogoa ekarriko dute".

Lanean jarduteko konpromisoa

Itziarko Auzo Udalaren hirugarren agintaldian sartuta, etorkizuneko erronka berriei begira jarrita daudela azpimarratu dute. "Datozen lau urte hauek emankorrak izatea nahiko genuke, eta horretarako lanean jarduteko konpromisoa sendoa daukagu". Iragarri dutenez, aurretik egin gabe geratu diren egitasmoak gauzatzea izango da hurrengo urratsetako bat. Eta landa eremuan kokaturiko Itziar moduko herri txiki batek izan ditzakeen beharrak asetzeko proiektuei ekiteko gogotsu azaldu dira.

Orain arte bezala, gainera, Debako Udalarekin "lanketa eta koordinazioa indartzea" izango da beste helburuetako bat. "Horretarako, Itziarko Auzo Udaleko ordezkariak Debako Udaleko batzorde ezberdinetara joango dira. Izan ere, hartzen diren erabaki guztiek eragina dute Itziarko Auzo Udalaren eremuan".

Debako Udalean ez ezik, Debemen, UEMA, Geoparkea eta Itziarko Industrialdea bezalako beste erakunde batzuetan ere presentzia bermatzeko nahia agertu dute. Horretarako, ordezkari ezberdinak izendatu dituzte.

Udaberrian hasiko dira Itziarko industrialdeko sarbidea hobetzen



Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.264.526,71 euro inbertituko ditu Kanala Hotelaren alboko bihurtune estua hobetzen. Jarduketa berri horrekin, GI-3210 errepidearen segurtasuna hobetzeaz gain, Itziarko industrialdera doan garraio astunaren irisgarritasuna bermatu eta horien zirkulazioa erraztu nahi du aldundiak. Lanak 2024ko bigarren hiruhilekoan haseta aurreikusten da eta horiek gauzatzeko epea sei hilabetekoa da.

Zehaztu dutenez, jarduketa berri horrek jarraipena emango die Itziarko eta Itsaspeko errepideetara igotzeko maldan zeuden bihurtune itxiek eragiten zituzten arazoak gutxitzeko 2020an egindako hobekuntzei. "Obra honek konpontzeke zegoen errepidearen

azken puntu problematikoari helduko dio: Kanala Hotelaren inguruko bihurtuneari".

Proposatutako konponbide horri esker, bihurtunearen aldean dagoen maldarik altuena malda ertaineko eremu bihurtuko dute. Horretarako, 108 metroko luzera eta gehienez 8 metroko altuera duen euste harri-lubeta bat diseinatu dute. Debako Udalak eskatuta, gainera, galtzadaren plataforma zabaldu egingo dute eskuineko aldean, espaloi bat egiteko. "Etorkizunean, espaloi horri jarraipena emango zaio, Itziar jatetxearen zabalguneraino. Bertan, garraio publikoko lineak gelditzen dira eta, horrela, oinezkoentzako konexio segurua lortuko da Itziarko herrigunearekin".

06:00etatik 00:00etara egoten da erabilgarri Astillero kaleko ikasgela

Ikasgela publiko berria zabaldu dute Astillero kaleko 10. zenbakiko beheko solairuan kokatua dagoen lokalean (lehen baserritarren azokako postuak egoten ziren lekuan). Anguleru kaletik du sarrera eta 06:00etatik 00:00etara erabil daiteke. "Ikasteko espazio lasaia eta egokia" dela azalduta, gune berria ikasleentzat eta Debako herritarrentzat balio esanguratsua duen "urrats garrantzitsua" dela nabarmendu zuen Alazne Txurruka alkateak prentsaurrekoan. Herritarren eskaera eta beharrei erantzunez sortu dute, hain zuzen, ikasgela.

Hamasei laguntzako lekua

Lau mahai jarri dituzte bertan eta mahai bakoitzean lau erabiltzailerentzako lekua dago; gutzira, hamasei espazio daude erabilgarri. Bestalde, komuna ere jarri dute eta wifi zerbitzua eskaintzen zaie erabiltzaileei.

"Deban erroldatuta egotea, gutxienez 17 urte izatea, ikasgela erabiltzeko eskaera aurkeztea eta ikasgelaren erabilera-arauak onartu eta errespetatuko direla jasotzen duen ardurapeko adierazpena sinatzea". Horiek dira ikasgela erabiltzeko baldintzak. Eskaera udal liburutegian aurkeztu beharko da.

Halal harategia
Fruta-denda / Supermerkatua

Razan


943 574 710 / 688 749 337
Sokagin, 2 behe. DEBA

Berriketan .eus

albisteak iritziak agenda mediateka

Bueltan dator Fokupean festibala, GOAZen ekimenez

"Antzerkigintza begirada kritiko batetik ikusteko aukera, barreak, negarrak, musika eta feminismoa". Hitz horiekin laburbildu dute antolatzaileek Fokupean-ek aurten dakarren egitarauaren mami nagusia. Azaroaren 3tik 12ra bitartean egingo da GOAZ Antzerki Taldeak bigarren prestaturako jaialdia. Dagoeneko salgai daude emanaldietarako sarrerak (turismo bulegoan eta Internet bidez, hiru euroan) eta tailerretan izena emateko epea ere zabaldu dute.



SARRERAK ETA IZEN-EMATEA

Tailerrean izena emateko edo emanaldietarako sarrerak erosteko bi aukera daude: turismo bulegoan edo Internet bidez (labur.eus/fokupean estekaren bitartez).

Emakumeek sorturiko piezak eta emakume aktoreak protagonista dituen festibal bat da Fokupean. Azken finean, "emakumeek arte eszenikoetan duten paperari garrantzia ematea da helburu nagusia, euskaraz egiten diren emakumeen sorkuntza eszenikoak ikusteko espazioa sortuz", azaldu du antolakuntza lanetan dabilen Itzale Laka GOAZeko kideak.

2021ean egin zen lehen aldiz Fokupean, besteak beste Azpeitiko Antzerki Topaketak erreferentetzat hartuta, eta sustatzaileak gustura gelditu ziren Debako festibalak eman zuenarekin. "Oso ondo joan zen. Ikusle dezente hurbildu ziren eta, gainera, herriko emakume batzuek parte-hartze aktiboa izan zuten, oholtza gainera igota edota tailerretan parte hartuta. Jaialdia aurrera ateratzeko lan gogorra egin ostean, antolatzaileok oso pozik amaitu genuen, asko disfrutatu baikenuen".

Prozesua aberasgarria izan zela iritzita, jarraipena eman nahi izan diote ekimenari. "Ezinbestekoa iruditu zitzaigun. Izan ere, ondo bete zen proposaturako helburua: Debako emakumeok fokupean jarri eta oholtza gainean ahalduntzea. Aurten ere batzuek esperientzia errepikatu nahi izan dute, eta beste batzuk lehen



Fokupean festivalaren antolatzaileak, aurtengo egitarauarekin. ERREDAKZIOA

aldiz ausartuko dira oholtza gainera igotzen. Ondo pasatzeaz gain, elkar-sartzeko modu bat ere bada, eta harreman politak sortzen dira halako ekintzekin", gaineratu du Lakak.

Ildo beretik, baina aldaketekin

Bigarren edizio honetan, "aldaketaxo" batzuk izango ditu jaialdiak. Izena aldatu diote, adibidez, lehen *Fokupean. Emakume Aktoreen Festibala* izatetik, orain soilik *Fokupean* izatera pasa baita. Lakaren esanetan, "iruditu zitzaigun ezezela beharrezkoa emakume aktoreen festibala dela nabarmentzea eta horregatik egin dugu aldaketa. Emakumeok egiten ditugun gauzetan askotan etiketa hori jarri beharra sentitzen dugun arren, alderantzizkoa gertatzen denean eta, nahita edo nahi gabe, egitarau osoa gizonen osatuta dagoenean, ez da gizonenkoa dela nabarmendu behar izaten".

Leku aldaketa ere aipatu dute berrikuntzen artean; orain bi urte herriko gun ezbardinetan egin zen egitaraua, azpiegitura arazoak zirela tarteko, eta aurten emanaldiak Arbil jubilatuen elkartearen egingo dira (ikastaroa izango da salbuespena, Ispiluen gelan egingo dute eta).

Osterantzean, antolatzaileek azaldu dute "antzerkigintza begirada kritiko batetik

"Jaialdiak antzerkigintza, feminismoa, euskara eta Debako emakumeen oholtzaratzea bultzatzen du eta hori aberasgarria dela iruditzen zaigu"

ikusteko aukera, barreak, negarrak, musika eta feminismoa" dakartela aurtien ere. Aurrez Deban izandako aktore batzuk izango dira berriz ere taula gainean (Laura Penagos, esate baterako), eta aurpegi eta talde berriak ere izango dira tartean (EHAZE Antzerkizale Elkarte, Dejabu taldea, Maren Basterretxea Iribar, Jone Bengoa, Arta kolektiboa eta Pez Limbo).

"Publiko osoari" zuzendutako askotariko jarduerak egingo dira azaroaren 3tik 12ra bitartean antolatu den festivalaren baitan. Formakuntza, antzerkia, ikuskizunak eta musika emanaldiak izango dira aukeran. Prest dute egitaraua eta egina dago parte hartzeko gonbidapena bera ere: "Debako herritar guztiak eta Euskal Herriko antzerkizaleak animatu nahi ditugu antzerki saioetara hurbiltzera. Tailerra emakumeei zuzenduta egongo da; beste guztia, ordea, mistoa izango da, noski".

Azaroak 3, ostirala | 18:00 | Jubilatuen egoitza

> Ikusle Kluba

EHAZE Antzerkizale Elkarte • Formakuntza

Festibalarri hasiera emateko, antzerkigintzaren hurbilpen teoriko bati ekin nahi zaio. Ikusleen perspektiba landu nahi da, antzerkira hurbiltzen diren ikusleei pieza ezberdinen aurrean kritikoak izateko tresnak emanez. Ikusle Kluba arte eszenikoak interpretatzeko dinamika berritzaile bat da. Parte hartzeko ez da ezer berezirik behar eta herritar guztiei irekia egongo da, emakume zein gizon. Hala ere, antzerkigintza genero perspektibatik landuko da formakuntza honetan.



Azaroak 4-5, larunbata-igandea | 10:00

Ispiluen gela

> Orbanak - Festa bat

Dejabu • Formakuntza

Sei orduko ikastaro honetan, antzerkiaren bitartez emakumeok gure gorputzarekin daukagun harremana arakatuko dugu eta abiapuntu bezala erabiliko dugu sorkuntza txiki bat egiteko. Japoniako Kintsugi teknikan bezala, gure pitzatutako zatiak urrez lotzen saiatuko gara. Emakumeon orbanak bilatu eta omenduko ditugu mugimendu eta irudien bitartez. Taldean partekatuko ditugu eta, denen ahots eta gorputzen bidez, gorputz disidenteen festa/aldarria sortuko dugu. Gure orbanak ikusi, ulertu eta laztanduko ditugu haiekin festa bat egitea bilatuz.



Azaroak 4, larunbata | 19:00 | Jubilatuen egoitza

> Daisy Crazy

Pez Limbo • Antzerkia

Lotsagabeak, erantzunkorak, iragarleak, xurgatzaileak, goriak, argiak, distiratsuak, gaizki-esaleak... Eta batez ere kontrako korrante bi. Horrelakoak dira bitxilore hauek, *Daisy Crazy* dira. Arauak betetzeaz potrotaraino dauden bi emakume. Gurekin jolasteko gogoz?



Azaroak 5, igandea | 12:30 | Jubilatuen egoitza

> **Igaro**

Maren Basterretxea Iribar • Ikuskizuna

Emakume batek kutxa handi bati tiraka lapurtzen du espazio hutsa. Zerk du hainbesteko pisua? Noizbait zerbaiten parte izan ziren objektuek, gaur ezerezean utziak daudenek. Bada kutxa berriro zabaldu eta amets hautsien dantza ospatzeko garaia, zamak baztertu eta arrastaka daramagun kutxak arnas eman diezagun uzteko unea.



Azaroak 5, igandea | Ondoren | Jubilatuen egoitza

> **Putaren bakarrizketa eroetxean**

Laura Penagos Rodriguez • Antzerkia

Zer du bizitzaz esateko aulki batean eserita, buruan kasko bat jantzita eta kablez inguratuta dagoen emakume batek? Emakume bat eroetxe bateko gela batean dago, bakarrik, aulki batean eserita eta kablez inguratuta, ikusten ez dugun doktore batekin hizketan. Emakumea prostituta da eta elkarrizketan bere istorioa azalduko du. Horrela, hainbat gai azaleratuko dira, sexualitatea, bortizkeria, klasismoa eta feminismoa, esate baterako.

Azaroak 10, ostirala | 19:00 | Jubilatuen egoitza

> **Sehaska-kanta gorriari**

Arta kolektiboa • Antzerkia

Erditu, erdibitu, bitan banatu, banandu... Badago benetako erditzerik? Nola garatzen da zeure burua sostengatzeko gaitasuna? Eta beste bat sostengatzekoa? Nola jakiten da ama izan nahi duzun edo ez? Nire alabari egin diezaiokekan okerrena bere ama izatea bada? Ama-alaba harremanean, ahizpa arteko harremanean, eromenean, norbere buruaren barnean gertatzen den bidaia batean murgiltzen gara antzezlan honetan. Diziplina anitzeko obra baten bidez, Alaine Agirrearen lengoia poetikoa, edertasuna, mina, sakontasuna eta begirada eszenatokira ekartzen ditugu, mutazio kontrolaezina akziora eramanez, geure burua erdituko dugulakoan, edo agian ez.



Azaroak 11, larunbata | 19:00 | Jubilatuen egoitza

> Lotura basatiak

Debako emakume aktoreak • Ikuskizuna

Poesia, bideoa, antzerkia... uztartzen dituen *Lotura basatiak* izenburuko euskarazko performancea estreinatuko dute festibalaren baitan. Debako bost emakume izango dira agertokian. "Bi kate; biak ebaki beharrekoak. Bat gorputzaren bizitzeko, bestea gogoaren askatzeko", dio antzezlanaren sinopsiak.



Azaroak 11, larunbata | Ondoren | Kalez kale

> Fokupean kantuan

Debako emakume korua • Musika

Herriko 60 bat emakumek osatutako abesbatza kalez kale ariko da euskal kantak abestuz, Amaia Zinkunegiren zuzendaritzapean. Uztailen batu zen taldea, Iturri Ondoan egitasmoaren bueltan, eta bidean adin ezberdineko jende gehiago batu zaie, azaroko emanaldia prestatze aldera. Hainbat entsegu egin ondoren, zazpi abestiz osatutako errepertorioa eskainiko dute.

Azaroak 12, igandea | 12:30 | Jubilatuen egoitza

> Kabia

Jone Bengoa • Antzerkia

Nola aldatu da bizitza azken 60 urteetan? Iragan hurbila urrundu egin al zaigu? Inguruko emakumeen ahotsak entzungo bagenitu, zer kontatuko lukete? Vitoria-Gasteiz helmuga bezala izan zuten emakume ezberdinen ibilbideak deseginez, gure iragan hurbilera bidaiatzen du pieza honek. Kabi bat inguruko materialekin eraikia den bezala, istorio hau bizi-esperientzia ezberdinez osatua dago. Bidaia anitzen amaiera da *Kabia*, ahots ezberdinen etxea. Emakume ezberdinei egindako elkarrizketak abiapuntutzat hartuta, euren bizipenak eta momentuko testuingurua barnebiltzen ditu antzezlan honek, urteetan zehar eremu pribatuan mantendu diren istorioak kontatzeko asmoz.



“Periak Itziar mapan jartzen laguntzen digu, hemen ere herri bat badela esaten”

ARANTZA EGAÑA ETA MARIA JESUS ARANBERRI • Itziarko Peria Batzordeko kideak



Baserritarrek, abeltzainek, ekoizleek, artisauek... beren eskaintza ezagutarazi eta erosleekin zuzeneko hartu-emana sendotzeko aukera izango dute azaroaren 1ean egingo den Itziarko Perian. Hitzorduaren nondik norakoak ezagutu nahian, Maria Jesus Aranberriekin eta Arantza Egañarekin elkartu da *Berriketan*.

Gipuzkoa mailan ez ezik, Euskal Herri mailan ere "estimu handiko" feria bihurtu da Itziarkoa. Ikusi besterik ez dago urtero erakartzen duen jende kopuru handia. Saltzaileak eta erosleak dira hitzorduaren arima, baina horren guztiaren atzean Itziarko Peria Batzordeko eta auzo udaleko kideen eta hainbat boluntarioen lan nekaezina dago. 28. aldiz auzolanean antolatutako ospakizunak industrialdera eta, oro har, herrigunera ere "giro ezin hobea" ekarriko duela diote antolatzaileek.

Zer lan dakar halako hitzordu bat antolatzeak?

Maria Jesus Aranberri (M.J.A.): Lan gehienak nahiko mekanikoak badira ere, azken bi hilabeteotako gure denbora libre gehiena antolakuntzari eskaini behar izaten diogu. Deiak jaso, hainbatekin harremanetan jarri, postuak antolatzen hasi... eta, ahal bada, berrikuntzak edo bestelako postuak bilatzen ere saiatzen gara. Kontuan izan behar da, gainera, feria goizean goiz hasi eta eguerdian bukatzen dela, eta horretarako hainbat talde antolatu behar izaten dira, hala nola trafikoaren zirkulazioaren gorabeherak zuzentzen dituen taldea edo eremua jaso eta guztia txukun uzteaz arduratzen dena.

Arantza Egaña (A.E.): Horri guztiari auzo udalaren lana gaineratu behar zaio. Logistika lana izaten da batez ere: lursailaren baimena lortzea, boluntarioei aseguruak



“Auzo udalaren babesik gabe gaur egun ezingo litzateke Itziarko Peria antolatu”



“Ahalegin berezia egiten ari gara bertako ekoizleak babesten eta horiei lehentasuna ematen”

“Babarrun-jana egingo dugu eta boluntarioek ez ezik, beraien ingurukoek ere lekua izango dute”

egitea, Debako eta inguruko udaletatik hainbat material (mahaiak, aulkiak, hesiak...) eskuratzea...

Zenbat lagun artean banatzen dituzue ardurak?

M.J.A.: Feria antolatzen hasi zen hasierako urteetan, Herria Sortzen plataformako kideek osatzen zuten Itziarko Peria Batzordea. Azken urteotan, berriz, hainbat herritarrok eta auzo udaleko ordezkariok osatzen dugu taldea; momentu honetan, zortzi bat lagun gara. Urtero kopuru berdintsua izaten da, baina herriarekin saretuta, hainbat arduraz aritzeko Whatsapp taldeak ere baditugu martxan.

Azken urteotan auzo udala bidelagun duzue.

M.J.A.: Herritarren babesaz gain, Itziarko Auzo Udalaren babesaz ere badugu, eta horrek asko poztzen gaitu. Egia esan, auzo udalaren babesik gabe gaur egun ezingo litzateke Itziarko Peria antolatuta; guretzat behar-beharrezkoa da laguntza eta babes hori.

Kontsumo ohiturak zeharo aldatu diren garaiotan, zer nolako harrera du hitzorduek?

A.E.: Ez dugu inoiz zenbaketa zuzenik egin, baina eremua bete egiten da. Horretan eraginik handiena eguraldiak dauka. Gurea aire zabalean egiten da eta ez dugu aterperik. Normalean, zortea izaten dugu, eguraldi ederra eta hego haizea izaten ditugulako, baina egia da eguraldi txarrak guztia zapuztuko lukeela.

Bertaratzen diren ekoizleentzako saltoki ona al da?

M.J.A.: Bai, oso ona. Salmenta handiak izaten dira. Itziarko Periarene eredu hobetu nahian, gainera, hausnarketa prozesu bat abiatu dugu eta, ondorioz, bertako ekoizleei eta artisauei lehentasuna ematea erabaki da; ikusgarritasuna eman nahian, lekurik onena eskaintzen zaie. Eremua ere erosoagoa izatea nahiko genuke eta, hori dela eta, postuak murriztu ditugu. Egia esan, postuak jartzeko eskaera handia izaten dugu, eta horrek aukeraketa zorrotz bat egitera behartu gaitu.

Lehen sektorearen gainbeheraren aurrean, halako feriek sektorea indartzen lagundu dezaketela uste al duzue?

M.J.A.: Bai, noski. Ekoizleen erakusleihen bihurtzen dira eta, saltzen dutenaz gain, beren burua ezagutzera emateko leku apartak dira. Azken urteotan, ahalegin berezia egiten ari gara bertako ekoizleak babesten eta horiei lehentasuna ematen.

Azkenaldian zenbait azoka desagertzen hasi dira. Itziarko Periarene etorkizuna ziurtatuta ikusten al duzue?

A.E.: Ibilbide luzeko hitzordua da gurea. Sektorean oso ezaguna da eta Gipuzkoako handienetarikoa ere bai; bertaratzeko interesa dutenen zerrenda luzea ikusi besterik ez dago. Periak, hain zuzen, Itziar mapan jartzen laguntzen digu, hemen ere herri bat badela esaten, eta ahal den neurrian horri eusten saiatuko gara.



Zer erosi ahal izango da azaroaren 1ean?

M.J.A.: Ekartzen duten guztia saltzeko dago: ganadua, janaria, erremintak, artisautza produktuak, landareak, arropa... Sasi-ardiak, ahuntz azpigorriak, Aiako Indate Berriko ganadu berezien erakusketa, hegazti erakusketa zabala, behiak, behorrak, astoak, poney-ak, tamaina txikiko ahuntzak, txerriak, txakurrak, usoak eta beste hainbat ere egongo dira ikusgai. Horrez gain, nekazal makineriaren erakusketa ere egingo da eta nahi beste produktu fresko eta elaboratu erosteko aukera egongo da.

Bestelako berezitasunik izango al da aurten?

A.E.: Goiz osoan herriko trikitilari gazteek eta txarangak alaituko dute eremua. Euskal Herriko VI. Sasi-ardi Txapelketa eta Gipuzkoako V. Ahuntz Azpigorri Txapelketa ere izango ditugu. Euskal Abereak elkarteko kideak ere bertaratuko dira eta Euskal Herrian galtzear dauden arraza autoktonoei buruzko informazioa banatzen ariko dira.

Bigarrenez herri bazkaria egitea erabaki duzue, ezta?

M.J.A.: Lehen, boluntario bezala aritzen zirenekin afari bat egiten genuen ondorengo asteburuan. Guztia jasotzen beranduago bukatzen genuen eta, egia esan, ez zen bazkaltzeko tarterik egoten. Iaz, ordea, lan karga arindu zenez eta 15:00ak alderako guztia jasota egoteko aukera zegoenez, bazkari bat egin genuen frontoian,

eta aurten errepikatzea erabaki dugu. Babarrun-jana egingo dugu eta boluntarioek ez ezik, beraien ingurukoek ere lekua izango dute.

'Sherpa.ai' promozio mailako aizkolarien finala eta maila nagusiko aizkolarien erakustaldia ere izango da.

M.J.A.: Itziarko Peria eguerdirako bukatzen bada ere, geratzen den jendearentzat eta herritarrentzat eguna biribiltzeko zerbait antolatzen saiatzen gara. Aurten, Sherpa.ai promozio mailako aizkolarien finala bertan egitea eskaini digute, erakusleho ona iruditu zaielako. Proba frontoian izango da, 18:00etan hasita, eta doakoa da. Nahi duen guztiari etortzeko gonbitea egin nahi diogu, eguna ondo bukatzeko era dotorea iruditzen zaigu.

Azkenik, Itziarko Periarra sekula joan ez denari, zer mezu helaraziko zenioke bertara hurbiltzeko?

A.E.: Goiz edo egun pasa ederra egiteko aukera paregabea izaten da. Autoz datozenek aparkaleku dezente izango dituzte industrialdean. Txitxarroko aparkalekua ere erabilgarri egongo da eta bertatik doako autobus zerbitzu etengabea eskainiko da. Nahiago dutenek, Zumaia eta Mutriku batzen dituen lineako autobusa ere hartu dezakete. Urtez urte datozenei, ordea, aurten ere lasai etortzeko esango genieke, beso zabalik hartuko ditugu eta.

“Rock-and-rolla egiten dugu, baina ez zaigu gehiegi gustatzen egiten dugunari etiketak jartzea”

ANARTZ UGARTE • Musikaria



Aurrez Debako hainbat musika taldetan ibili ondoren, Euskal Herriko rock eszenan zeresana ematen ari den Durangaldeko Nevadah taldeko baxujolea da gaur egun Anartz Ugarte Gorroño. 33 urte ditu, automobilgintzan dihardu lanean, eta "musikarekin zerikusia duen guztia" du afizio. Azken urteotan lurretan bizi den arren, lotura estua izaten jarraitzen du Debarekin; bertan ditu, besteak beste, familia eta lagunak.

Orain sei urte hasi zen Anartz Ugarte baxujolearen ibilbidea Nevadah taldean; Ekhi Arrieta (ahotsa), Liher Arteaga (gitarra), Jon Agirrebeitia (gitarra) eta Pello Baños (bateria) ditu taldekide. "Laguna dudan Jon Agirre taldeko abeslari ohiak 2017an egindako proposamena onartuta sartu nintzen; baxujolea atzerrira zihoan lanera bolada batez, eta haren ordeztzeko aukera eman zidaten. Bost urte inguru neramatzan talde batean jo gabe eta animatu egin nintzen". Gustura dago Durangaldeko taldean. "Oso esperientzia ona da *satelite* hauekin eszenatoki, entsegu gela edo taberna batean denbora partekatzea".


Strikers, Secuestro Express, Debako Elektrotzaranga... Aldez aurretik Debako hainbat rock taldetan ibilitakoa zara, baina beti ikusi izan zaitugu gitarra jotzen. Zer nahiago duzu, gitarra edo baxua, gaur egun bezala? Egia esan, baxua asko gustatu izan zait betidanik. Denborarekin, gainera, gustu handiagoa hartu diot instrumentu honi. Kontzertu bat ikusten nagoenean ere, adibidez, gitarristari baino askoz gehiago erreparatzen diot baxujoleari. Ez da gauza berria, betidanik pasatu izan zait hau.



Nevadah musika taldea. IBON URIZAR

Rock-and-rolla, bluesa, soinu *garajeroak*... Nola definituko zenuke Nevadah-ren musika estiloa?

Rock-and-rolla egiten dugu, baina ez zaigu gehiegi gustatzen egiten dugunari etiketak jartzea. Bakoitzak gustu musikal ezberdinak ditugu, eta talde batzuk beste batzuk baino gustukoago dauzkagu, baina orokorrean nahiko musika antzekoa entzuten dugula esango nuke. Abestiak konposatzeko orduan gutako bakoitzak bere ukitu pertsonala ematen dio.



Anartz Ugarte, Nevadah taldeko baxujolea. MARTIN LORES

Taldekieen joan-etorriak, geldiueneak... fase ezberdinak ezagutu dituzu taldearen ibilbidean. Zer unetan edo nola dago orain Nevadah?

Azken bolada honetan kontzertu dezente eman ditugu. Dena den, laster geldiuene bat egiteko ordua iritsiko da. Zerbait berria prestatzeko gogotsu gaude, oraindik ez dakigu noiz izango den, baina hori da gure asmoa. **Nevadah-k hiru disko grabatu ditu eta horietako bitan parte hartzeko aukera ere izan duzu. Zer nolako esperientzia izan da?**

Egia esan behar badut, oso esperientzia ona izan da. Disko bakoitza estudio ezberdin batean grabatu dugu. Bigarren diskoa —*We're coming to you* (2018)—, Oiartzungo Mecca estudioan grabatu genuen eta *Still goes on* (2023), aldiz, Berrizko Lorentzo Records-en. Bi kasuetan, abestiak zuzenean grabatu ditugu, horrela egiteak beste esentzia bat duela iruditzen zaigulako. Gainera, guretzat askoz errazagoa eta politagoa da horrela grabatzea.

Orain arte ingelesez abestu izan duzuen arren, azken diskoan euskarazko bi abesti ere sartu dituzue.

Fonetikoki, ingeleza askoz gehiago gustatzen zaigu

“Gure jarrera eta egiten dugun musika zuzenean bizi edo entzutekoa da, are gehiago areto batean publikoarekin dagoen hurbiltasunarekin”

rock-and-rollean. Gainera, entzuten ditugun abesti gehienak ingelesez dira. Hala ere, euskaldunak garenez, keinu bat egin nahi genion gure hizkuntzari. Dena den, gure hurrengo abestiak zein hizkuntzatan konposatuko ditugun oraindik ez dakigu.

Diskoetan taldearen indarra nabaritu daitekeen arren, askoren esanetan, Nevadah-k asko irabazten du zuzenekoan...

Nevadah zuzeneko taldea da. Gure jarrera eta egiten dugun musika zuzenean bizi edo entzutekoa da, are gehiago areto batean publikoarekin dagoen hurbiltasunarekin.

Kontzertuz kontzertu, bertako rock-and-roll eszenan zuen lekua egin duzue. Osasuntsu al dago rocka XXI. mendeko Euskal Herrian?

Nahiko genukeena baino gutxiago, baina Euskal Herrian oso talde onak daudela esango nuke. Dena den, zoritxarez, eszena honen barruan talde bakoitza bere aldetik doala onartu beharra dago. Beste musika estilo batzuekin alderatuta, punk-oi! mugimenduarekin, adibidez, rock-and-roll eszenan ia ez dago taldeen arteko elkartasunik, nahiz eta taldeen artean harreman ona izan. Bestalde, gure kontzertuetara etortzen diren ikusle gehienak 35 urtetik gorakoak dira eta gaur egungo gazteek beste musika mota batzuk entzuten dituzte.

Oholtza nazioarteko talde ezagun batzuekin partekatzeo aukera ere izan duzue edo izango duzue... (The Dictators-ekin irailen, The Sonics-ekin azaroan...)

Oholtza halako taldeekin partekatzea plazer handia da beti, baina guretzat talde gazteekin jotzea ere plazer bera da. Askok gustatzen zaigu talde berriak deskubritzea eta haiekin harremana izatea.

Zer asmo ditu taldeak etorkizunera begira?

Lehen esan dudan moduan, oraindik ez dugu datarik zehaztu, baina gure asmoa zerbait berria sortzea da. Nahiz eta musikaz ez garen bizi eta jada ez ditugun 20 urte, motibatuta gaude. Denbora aldetik, bakoitzak bere gauzak ditu, baina beti ateratzen dugu rock-and-rollari eskaintzeko tartetxo bat.

Nerea Loiola idazleak Raul Guerra Garrido beka irabazi du



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak lehenengo aldiz eman duen Raul Guerra Garrido beka irabazi du Nerea Loiola idazle debarrak. 25.000 eurokoa da bekaren aurrekontua eta *Ardi galduak* proiektua garatzeko baliatuko du. 2024a amaitu aurretik argitaratu beharko du Loiolak euskarazko ipuin bilduma.

Idazleak nabarmendu du lortu berri duen beka honek urtebeterako soldata "duina" bermatuko diola eta urtebetez sorkuntza proiektu bati benetako lehentasuna emateko aukera izango duela. "Oso pozik

nago aukera hau niri eman didatelako, baina halako gehiago behar dira: hor kanpoan kultura sortu nahian dabilen euskaldun mordoxka bat dago, baliabide faltagatik euren proiektua garatu ezinik dabilen artista asko, eta baldintza prekarioetan orekak egiten dabilen beste asko. Eta ez da posible. Euskarazko kultur sorkuntza beharrezkoa da eta instituzioen babesa ezinbestekoa".

Literatur uzta oparoa

1985ean Deban jaioa, Zarautzen bizi da gaur egun Loiola. Ingeniaritza Mekanikoan graduatua da eta matematikako irakaslea izan zen. 2022az geroztik, ordea, literatura du ogibide. Duela bi urte *Epizentroa* argitaratu zuen eta liburuak hainbat aintzatespen lortu ditu; Euskadi Literatura Saria jasotzeko hautagaien artean egon zen, adibidez.

Helduentzako ez ezik, haur eta nerabeentzako liburuak ere idatzi ditu: *Harri bat poltsikoan*, *Azken lanhiatarra*, *Naian*, *7Gudalekuak...*

Zabalik dago XVIII. Tene Mujika beka lanak aurkezteko epea

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak XVIII. Tene Mujika beka sortu dute, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz. Abenduaren 11n bukatuko da lanak aurkezteko epea eta 6.000 euroko dirulaguntza jasoko du irabazleak.

Gure herrian azken 60-70 urteetan izandako pertsona, talde, gertakari edo mugimenduren bati buruzko liburuak egiteko proiektuak aurkez litezke beka. Lanak jatorrizkoa eta euskaraz sortua izan beharko du, aurrez argitaratu nahiz saritu gabea.

Deialdian jaso dutenez, proiektuak aztertzean, bi ezaugarri hartuko dira batez ere kontuan: testuaren beraren kalitatea eta gaiaren interesa. "Ez da fikziorik onartuko, baina bai materialaren lanketa literarioa, idazleak hala nahiko balu; dibulgazio lanak bezala egin litezke ikerketak, baina ez espezialistentzat bakarrik idatzitakoak", ohartarazi dute.

Bekaren oinarriak *deba.eus* atarian irakur daitezke.

Goizane Aizpuruaren 'Izarak' eleberria gaztelaniaz argitaratu du Alberdaniak


Duela bi urte plazaratu zuen Goizane Aizpuru Ibañezek (Deba, 1984) *Izarak* eleberri luzea, Alberdaniarekin. Eta orain, 2023ko urrian, argitaletxe berarekin ikusi du argia liburuaren gaztelaniazko itzulpenak, *El reflejo de la tibiaza* izenburupean. Narrazioa Gerardo Markuletak eraman du gaztelaniara eta 18 euroan jarri dute salgai

paperean (11,99 euroan, berriz, ebook bertsioan).

Afasia Airlines (Bermingham, 2018) poema liburuaren ostean idatzi zuen Aizpuruak *Izarak* eleberria, Eusko Jaurlaritzaren sorkuntzabeka bati esker. Aurrez, hainbat ipuin eta bi antzerki sortu zituen, baita kondaira-liburu bat itzuli ere. Zutabegilea da *Berriketan*-en.



Bertso saioa eta umorezko ikuskizuna izango dira aukeran KulturEkin egitasmoaren baitan



Debako Kultur Elkarteak bertso saioa hartuko du azaroaren 10ean, ostiralean, 20:00etan. Lau bertsolari izango dira taula gainean, Manex Astigarraga gai-jartzaile debarraren gidaritzapean: Nerea Ibarzabal, Aitor Mendiluze, Aitor Bizkarra eta Ane Zuazubiskar. Sarrerak zortzi euroan izan dira salgai, baina guzti-guztiak (85 orotara) egun bakar batean agortu direla jakinarazi dute antolatzaileek.

Kultur Elkarteak eta Debako Udalak elkarlanean antolatutako KulturEkin egitasmoaren baitan egingo da emanaldia. Ez da, ordea,



aurten programatuko duten azken saioa izango. Izan ere, abenduaren 28an, 20:00etan, *Mundos paralelos* izenburuko umorezko ikuskizuna izango dela aurreratu baitute. Antzezlanak Oscar Terol komikoa du sortzaile eta protagonista. Bertan, bakarrizketan arituko da aktore donostiarra eta gitarra ere izango du lagun saioa musikatzeko.

Terolek gizarteak ulertzen ez duen mundu batean kokatuko du ikus-entzulea. Datoen asteotan zabalduko dute aurtengo azken emanaldirako sarreraren inguruko informazioa.

Hego Korean eta Japonen aritu da Neomak, Sua taldearekin kontzertu biran



Alaitz Eskudero debarra kide duen Neomak musika taldea Hego Korean eta Japonen izan da urriko lehen hamabostaldian, Sua taldearekin batera. Kontzertuak Seulen, Tokion eta Minakamin eman dituzte.

Bestalde, Neomak-ek *Aioiai* izenburuko abestia eta bideoklip berria ere plazaratu ditu irailean. Sustraitzat dituen musika tresna tradizionalak alde batera utzi gabe, beste soinu, dinamika, estilo eta estetika batzuk bilatu nahi izan ditu taldeak lan berrirako. Ekoizpenaz Jimbo Paez arduratu da eta grabazioan Haritz Harreguyren estudioan egin dute; bideoklipa, aldiz, Badator etxeak ekoiztu du, Ane Berriotxoaren gidaritzapean.

Magic The Gathering rol karta-jokoaren txapelketa, Kultur Elkartearen



Azaroaren 12an, igandean, Magic The Gathering rol karta-jokoaren txapelketa izango da, estreinako, Debako Kultur Elkarteko liburutegian. 10:00etan hasiko da lehia eta jokalaria pauper formatuan arituko dira. Magoen arteko karta bidezko bataila bat irudikatzen du jokoak. Izen-ematea zabalik dago jadanik, bost euroan, ondorengo estekan:

www.labur.eus/mtg/kulturelkartea (bertan zehazten dira ordainketa egiteko jarraibideak). Plaza guztiak betetzen ez badira, egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera.

Debako Magic Taldearen eta Kultur Elkartearen ekimenez egingo da txapelketa. Azaldu dutenez, parte hartzeko ezinbestekoa da *matcherino.com* webgunean izena ematea, eta karta-sortaren zerrenda idatziz jasota eramatea gomendatu dute. Sari ezberdinak izango dira jokoan.

Urria/Azaroa

URR. 29 (IGANDEA)

IPUIN KONTAKETA

17:30 Debako Kontalarien eskutik. Ispiluen gela.

AZA. 1 (ASTEAZKENA)

ITZIARCO PERIA

09:00-14:00 Azokaren irekiera, Euskal Herriko VI. Sasi-ardi Txapelketa, Gipuzkoako V. Ahuntz Azpigorri Txapelketa. Itziarcho industrialdea.
14:30 Bazkari herrikoia. Zabalsoro frontoia.
18:00 'Sherpa.ai' promozio mailako aizkolariaren finala. Zabalsoro frontoia.



AZA. 2 (OSTEGUNA)

BASTIÑUIXAN

16:30 Haurrek eta gurasoek elkarrekin gozatzeko jolasak. Calbeton zumardia.

DASTAKETA (ERRIGORA)

18:30 Zuhatza Euskara Elkarteak antolatuta. Izen-ematea: 688 84 03 08. Kultur Elkarteak.

AZA. 3-12

FOKUPEAN FESTIBALA

Egitarau osoa ale honetako 16-20 orrialdeetan.



AZA. 4 (LARUNBATA)

MANIFESTAZIOA

'Oldarraldiaren aurrean euskararekin bat'. Bilbo. Autobusa Deba-Itziartik:
15:15 Itziarcho Kanala.
15:30 Estalitako pasealekua.

AZA. 5 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkarteak.

AZA. 6 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

AURKEZPENA

19:00 Energia-komunitatea sortzeko prozesuaren aurkezpena. Udalaren eskutik. Kultur Elkarteak.

AZA. 9 (OSTEGUNA)

AURKEZPENA

19:00 Energia-komunitatea sortzeko prozesuaren aurkezpena. Udalaren eskutik. Itziarcho Burugorri.

AZA. 10 (OSTIRALA)

ODOL ATERATZEA

16:30-20:30 Aurrez txanda eskatzea beharrezkoa da (612 40 21 03 telefonora deituta). Luzaro ikastetxea.

KULTUREKIN

20:00 Bertso saioa. Kultur Elkarteak.

AZA. 11 (LARUNBATA)

EMAKUMEA* SURFLARI

09:30 Surf-skate saioa. Hondartza.
12:00 Dokumentalaren emanaldia eta solasaldia. Kultur Elkarteak.

BISITA GIDATUA

11:00 'Lastur familian'. Lasturko plazatik.

AZA. 12 (IGANDEA)

MAGIC TXAPELKETA

10:00 Informazioa: labur.eus/mtgkulturelkartea. Kultur Elkarteak.

IPUIN KONTAKETA

17:30 Debako Kontalarien eskutik. Ispiluen gela.

ZINEMA

19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkarteak.

AZA. 20 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

AZA. 21 (ASTEARTEA)

IRAKURKETA KLUBA

19:00 'La parábola del sembrador' (O.E. Butler). Ostolaza Udal Liburutegia.

IKASTAROAK

KZgunea: Azaroaren 1etik 15era, 09:00etatik 13:00etara.

TENE MUJIKKA BEKA

Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 11 da. Oinarriak: deba.eus atarian.

Eskualdeko Agenda

TRIPONTZIAK

Azaroaren 3tik 26ra

Ekimen gastronomikoaren hamargarren edizioa egingo da Debabarrenean.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

BURGOA ZUAZO Urriak 30, 31 eta azaroak 1, 2, 17, 18, 19.

ZALDUEGI Azaroak 3, 4, 5, 13, 14, 15, 16.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI 669 26 22 01
BURGOA ZUAZO 667 33 88 90

Larunbat goizetan beti bat irekita:

BURGOA ZUAZO
Azaroak 11 eta 18

ZALDUEGI
Urriak 28 / Azaroak 4 eta 25

Jarraitu gaitzazu!

berriketan.eus

Zuhatza Euskara Elkarte



HURRENGO HITZORDUAK



berriketan.eus/agenda

IRAGARRI ZURE EKIMENA

Ekimenen bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan azaroaren 19a baino lehen.
berriketan@zuhatza.com
 943 19 13 83

Telefono jakingarriak

| | | | |
|---------------------------|--------------|-----------------------------|--------------|
| Zuhatza Euskara Elkarte | 943 19 13 83 | Haur Eskola | 943 19 20 81 |
| Debako Udala | 943 19 28 40 | Luzaro (Ifar kalea, HH) | 943 89 91 55 |
| Itziarko Auzo Udala | 943 19 92 55 | Luzaro (Itziarko bidea, LH) | 943 89 91 54 |
| Udaltzaingoa | 689 12 58 89 | Luzaro (Itziar, HH) | 943 89 93 27 |
| Bake epaitegia | 943 19 23 53 | Luzaro (Itziar, LH) | 943 19 93 06 |
| Eguneko Zentroa | 943 19 29 33 | Mendata BHI | 943 89 92 65 |
| Turismo Bulegoa | 943 19 24 52 | Deba Musikal | 943 19 20 16 |
| Ostolaza Udal Liburutegia | 943 19 25 60 | Helduen Heziketa Iraunkorra | 943 19 21 76 |
| Kiroldegia | 943 19 22 62 | Debabe Euskaltegia | 943 19 22 36 |
| Ertzaintza (Eibar) | 943 53 17 00 | KZgunea | 943 02 36 29 |
| Osasun zentroa (Deba) | 943 19 24 24 | Gaztelekua | 943 19 27 62 |
| Osasun zentroa (Itziar) | 943 19 90 42 | Lanbide | 945 16 06 00 |
| Itziarko Botikina | 687 75 67 21 | Correos | 943 19 17 99 |
| Botika - A. Zalduegi | 669 26 22 01 | Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Botika - Burgoa Zuazo | 667 33 88 90 | Ur Zerbitzuak | 943 60 80 02 |
| Gurutze Gorria | 943 19 10 32 | Debegesa | 943 82 01 10 |
| DYA Larrialdiak (Gip.) | 943 46 46 22 | Euskotren | 944 33 33 33 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 | Lurraldebus | 900 30 03 40 |
| Eibarko Ospitalea | 943 44 90 00 | Debako Parrokia | 943 19 14 97 |
| Donostiako Ospitalea | 943 00 70 00 | Itziarko Parrokia | 943 19 93 04 |

Gestilan
asesores aholkulariak

DEBA | Bulego berria
 Maxpe kalea, 7 behea ☎ 943 19 21 06

EIBAR | Zezenbide, 4 behea ☎ 943 20 70 02

asesoriagestilan
 gestilan.es
 gestilan@gestilan.es

Uzuri
optika audio

**PILARIK GABEKO
 AUDIFONOAK
 PROBATU
 HILABETEZ DOAN**


Ostolaza kalea 7,
 20820 Deba
 Tel: 943 19 21 92

Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
 20820 Deba, Gipuzkoa
 info@debaklinika.com
 T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
 Kirurgia
 Implanteak
 Ortodontzia tradizionala
 Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
 Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.




EZKER-ESKUIN

- 3 Anartz Ugarteren rock taldearen izena.
- 5 Kimetz Oñederra aizkolariaren ezizena.
- 8 Ur-kirol elkarte.
- 9 Faustino Azpiazu trikitilariaren ezizena.
- 11 Josune Arakistain musikariaren bakarkako proiektuaren izena.
- 12 Goizane Aizpuruaren lehenengo eleberraren izenburua.

GOITIK BEHERA

- 1 Euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak ohiturarik ez dutenekin elkartzen dituen egitasmoa.
- 2 Lasturko bailaran aurkitu ditzakegun jatorri karstikoko sakonguneak.
- 4 Deba eta Mendaro artean dagoen XVI. mendeko komentu-ospitalea.
- 6 Emakumeek sortutako piezak eta emakume aktoreak protagonista dituen festibala.
- 7 Kultur Elkartearen eraikina diseinatu zuen arkitekto madrildarra.
- 10 Beheko argazkiko mendia.



EBAZPENA
 Ezker-eskuin: 3 Nevadah | 5 Airtola | 8 Zurrunbilo | 9 Sakabi | 11 Sune | 12 Izarak
 Goitik behera: 1 Mintzalaguna | 2 Dolinak | 4 Sasola | 6 Fokupean | 7 Cardenas | 10 Andutz

Mikel ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO ETA BERRIZTAGARRIAK

Hondartza 10 behea,
20820 Deba

T. 943 191 774
M. 699 975 206
info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton

JATETXEA

Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH SQUARE

SCHOOL OF ENGLISH

INGELES AKADEMIA

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206
info@english-square.net

Informatika
Tresneria
informatikoa



Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com



943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com



ieraenea
produnda

"maile ditut nire/gure bazterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf:943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com



LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52



arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



janire & maitane
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi
pentsioa

* *

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

f @



50 URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN
ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak



Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



A. Esnaola
P. Echeverria

Hortz klinika Clinica dental

Fermin Calbeton 19-3 ezk. EIBAR
943 20 72 17 - 660 422 808
@pjadent

Nafar hegoaldeko uzta
Zuhatza Euskara Elkarteko
bazkideen eskura



errigora.eus

10 urte bete-bete

urriak 20 - azaroak 9

Saski bakoitzaren balioaren %25 euskalgintzara bideratzen da

50€



Eskatu
10 urte bete-bete
saskia!

Hastapenetan bezala, 50 euroko saski bakarra (23 ekoizleren 9 produktu ekologiko eta konbentzional nahasian).

Internet bidez eskatu eta saskiak Deban jaso

Zuhatza euskara
elkartea

ZUREKIN nonahi noiznahi

ARRATSALDEZ

PARKEAN

AUZOAN

GOIZETAN

Elkarrekin **MINTZAPOZA** praktikatzeko nahi beste plan aukeran!

EMAN IZENEA!
mintzalaguna.eus

Mintza POZA PRAKTIKATU

IZEN EMATEA:
labur.eus/Zuhatza_Deba - 943 191 383

Antolatzaileak



Babesleak

